

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

346/2026 Foru Agindua, uztailaren 16koa. Gehieneko zuzkidura osoa handitzea Lurralde Oreka-ren eta Lurralde Antolamenduaren Sailaren norgehiagoka bidezko Arabako Lurralde Historikoko 20.000 biztanletik beherako udalerriei zuzendutako udalerrien arteko garraioa finantzatzeko dirulaguntzen programarako

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 15eko 26/2021 Foru Dekretuaren bidez, Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamendu Sailaren dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak onartu ziren, norgehiagoka bidez, udalerri barruko garraioa finantzatzeko, 20.000 biztanletik beherako Arabako Lurralde Historikoko udalerriei zuzenduta. Era berean, otsailaren 4ko 51/2026 Foru Aginduak aipatutako dirulaguntzen 2026ko ekitaldirako deialdia onartu zuen.

Oinarri orokor horiek eta 2026ko ekitaldirako deialdia 2021eko ekainaren 23ko eta 2026ko otsailaren 16ko ALHAOn argitaratu ziren, hurrenez hurren, eta hilabeteko epea eman zen eskabideak aurkezteko, deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskaera guztiak epe barruan aurkeztu ziren, eta dirulaguntza eskatu duten toki erakundeek deialdiaren oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen dituzte.

Deialdiak 55.000,00 euroko zuzkidura izan zuen, eta garraio linea bakoitzeko 6.300,00 euroko guztizko zenbatekoa ezarri zen, eta udalerri bakoitzeko guztizko zenbatekoa, berriz, 10.500,00 eurokoa. Hala ere, hasierako zenbatekoa gehienez ere ehuneko 10 handitu ahal izango da, beste deialdi bat egin behar izan gabe, baldin eta aurrekontu kreditua badago.

Horiek horrela, oinarriak eta eskaerak balorazio batzordeko kideen esku jarrita, eta eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera erkatu ondoren batzorde horrek txostena egin zuen, bertan jaso zuelarik bere ebaluazioa eta erakunde onuradunen lehentasun ordena.

Dirulaguntza proposamenaren zenbatekoa 58.698,97 eurokoa da, oinarrien eta deialdiaren baldintzak betetzen dituzten udalerri eskatzaileentzat. Beraz, balorazio batzordeak deialdia 3.698,97 eurotan handitzea proposatzen du, hau da, deialdian jasotako ehuneko 10eko muga baino gutxiago.

Ekainaren 18ko 312/2026 Foru Aginduaren bidez, 3.698,97 euroko lehen igoera onetsi zen, eta 300,82 euroko aldea dago balorazio batzordeak handitzea proposatzen duen zenbatekoarekin.

Deialdiaren seigarren oinarriarekin bat etorritik, eskaera bakoitzari dagozkion izapideak bete eta gero, Lurralde Oreka-ren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatuari aurkeztuko zaizkio, eta hark ebartziko ditu, dagozkion foru aginduaren bidez, zeinak amaiera emango baitio administrazio bideari.

Horregatik guztiagatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Gehieneko zuzkidura osoa handitzea 300,82 eurotan Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamendu Sailaren norgehiagoka bidezko dirulaguntzen programarako, udalerrien arteko garraioa finantzatzeko Arabako Lurralde Historikoko 20.000 biztanletik beherako udalerrientzat. Ondorioz, Arabako Foru Aldundiaren 2026rako aurrekontuko "10202. G/441100/46290100 Udal barruko garraioa" partidaren zenbateko baimendua 58.999,79 eurokoa izango da.

Bigarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 16a

Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua

LAURA PÉREZ BORINAGA

Lurralde Oreka zuzendaria

JAVIER GORBEÑA GARCÍA